



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko otsailaren 17a

21. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidarian REACT Next Generation funtsak erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Nafarroan eskola-garraioak duen kostuari buruzko azterlana kanpoan kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, toki entitateen finantzaketa taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalek gastuei aurre egin ahal izatea bermatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, trakzio-ahalmena baliatzen duten udalen determinazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, 2022an 2021eko finantzaketa bera mantenduko duten udalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, txertoa jarrita izan arren COVID-19az kutsatutakoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, talde ezezagun baten eraso pairatu duten mugarriak leheneratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, barne medikuntzako albokoen kontratuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemetako proiektuei eta aurrerabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, arnasmagailuen lehiaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidarian REACT Next Generation funtsak erabiltzeari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidarian REACT Next Generation funtsak erabiltzeari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00357), honako hau jakin nahi baitu: "Hiri erabilerako uraren ziklo integralaren plan gidaria betetzean REACT Next Generation funtsak bilatzeko eta erabiltzeko zer urrats egin dira, Leringo Edateko Uren Araztegia eraikiz planaren ezarpena 2019-2030erako azkartzeko eta Ega ibai bazterreko herriak Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemara lotzea aurreratzeko, Egaren adarraren berrastea aprobeztatuta?". Hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horretaz ematen dion informazioa: 2019-2030 aldirako Hiri Erabilerako Uraren Ziklo Integralaren Plan Zuzentzailearen helburu nagusiak dira, hornidurari dagokionez, Nafarroa osoa kalitate oneko ur gordinez hornitzea iturri dibertsifikatuetatik, klimaldaketarekin lotutako gertaerekiko erresilientzia areagotzeko; eta hornidura-eskaria kudeatzea, oinarritzat hartuta eskariaren murrizketa eta erabileraren efizientziaren hobekuntza. Helburu horiek betetzeko, azpiegituretako inbertsio-lerro batzuk programatu dira. Hain zuzen ere goi-hornidurako azpiegituretan 70,7 milioi euroko hobekuntzak egitea planteatu da 2019-2024 aldirako.

Ega ibai bazterreko herriei dagokienez, plan zuzentzaileak helburutzat ezartzen du bere indarraldiko lehen sei urteetan (2019-2024) behar diren jarduketak egitea herri horiek guztiak Mendazako hargunearekin lotzeko, hartara 2024an kalitate bikaineko ur baliabideez hornitu ahal daitezen. Jarduketa horretarako 23.856.250 euroko inbertsioa aurreikusten da, guztira.

Behin amaituta planaren lehen sei urteetarako aurreikusten diren inbertsio guztiak –hau da, 70,7 milioi euroko inbertsioak Nafarroa osorako–, 2027an ekinen litzaioke, planaren arabera, Estellerriko Erriberako hego-ekialdea Itoitz-Nafarroako Ubidea sistemarekin lotzeari. Baliteke data horretan aldaketaren bat izatea, obra horien guztien exekuzioak eta plangintzak eraginda.

Hurrengo urteetarako aurreikusitako inbertsioak lehenago egiten ahalegintzeko eta Toki Inbertsioen Planaz gainera beste finantzaketa-iturri batzuk bilatu ahal izateko, uraren goi-horniduraren inguruko zenbait jarduketa sartu ziren Nafarroako Gobernuak prestatutako trakzio proiektuetan, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko Next Generation funtsak jasotzeko gai ziren haietan. Zehazki, Navanza proiektuan (Nafarroan herri eta hiri erresiliente eta jasangarriak eraikitzeko suspertze plana) osagai bat sartu zen hiri erabilerako uraren arloko inbertsioak egiteko, eta barnean hartzen zituen uraren goi-hornidurarako 50 milioi euroko inbertsioak, goi-horniduran hobekuntzak egin ahal izateko, hiri erabilerako uraren plan zuzentzailean ezarri bezala. Aurreikusten zen urtean 10 milioiko inbertsioa egitea 2022-2026 bitartean, Next Generation funtsen exekuzio epea amaitu arte.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Nafarroan eskola-garraioak duen kostuari buruzko azterlana kanpoan kontratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Roncesvalles Solana Arana andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroan eskola-garraioak duen kostuari buruzko azterlana kanpoan kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioko María Solana Arana andreak 10-21/PES-00358 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hori dela-eta, hona Hezkuntzako kontseilariak eman beharreko informazioa:

Lehenik, argitu beharra dago ezen, Parlamentuan adierazi izan den bezala, Hezkuntza Departamentuak lehen aldiz kostuei buruzko azterlana egin duela 2021ean eskola-garraioaren lizitazioa egiteko. Kostuei buruzko azterlan hori, ANETen eskaeraren ondoren, Kontratazioaren Atarian argitaratu zen, balizko lizitatzaille guztien eskura egon zedin, eta, noski, Nafarroako Kontratu Publikoen Auzitegira igorri zen, lizitazioaren espedienteko gainerako agiriekin batera.

Hezkuntza Departamentuak egindako kostu-azterketa horretan José Abel Casado Martínez aholkulari aritu da. Gerora, ANETek hari buruz aurkeztutako erreklamazioen ondorioz, txosten bat eskatu da Hezkuntza Departamentuak egindako kostu-azterketa balidatzeko. Guztizko kostua 12.705 euro izan da, BEZa barne.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

Galdera, toki entitateen finantzaketa taxutzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin toki entitateen finantzaketa taxutzeari buruz Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00360), honako hau jakin nahi baitu: “Dauden hogeitaz aldagaietatik zergatik aukeratu dira bost toki entitateen finantzaketa taxutzean aplikatzeko?”. Hona Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak horretaz ematen dion informazioa: NUPi (INARBEko ikerketa taldea) lan batzuku enkargatu zitzaizkion Nafarroako udalerrien gastu-beharren indizea eguneratzeko, bat etorritik 2000. urteko hasierako azterlanean, 2004ko lehen eguneratzean eta 2008ko azken berrikuspenean ezarritako metodoarekin, eta lan horien konklusioetan datza arrazoa.

Izan ere, NUPek txostena egin du funtsa banatzeari begira gastu-beharren indizea lortzeko erabili beharreko metodoari buruz, eta txosten horren arabera udalerrien gastu-beharra magnitude latentea da eta ezin da zuzenean neurtu. Arrazoi horrengatik, udal jardueretatik abiatuta gastu-beharra zehar bidez agertzen duten adierazle batzuk hautatu behar dira. Hautaketa hori bi faseetan egin da:

1. Lurralde Kohesiorako Departamentuan (Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia) eskuragarri dauden adierazleak ebaluazioa egin da, gastu-beharren adierazle gisa balio dutela berresteko. Horretarako, adierazleak banaka erkatu dira erreferentziako aldagaiarekin (toki gastu bateratua) erregresio bakuneko analisien eta barreiadura-grafikoen bidez. Lehen fase honetan baztertu egin dira toki gastu bateratuarekin erlazio ahula duten adierazleak.

2. Lehen fasean hautatutako adierazle baliozkoen arteko erlazio egitura aztertu da. Azterketa hori egin da ez dadin erredundantziarik izan gastu-beharren adierazleetan, pentsatzekoa baita elkarren artean erlazio lineal sendoa dutela. Hartara gastu-beharren adierazleak multzo txikia lortu nahi izan da, GBA errazago kalkulatzeko. Fase honetan erabilitako estatistikako teknika Osagai Nagusien Analisia izan da (hemendik aurrera, ONA).

Adierazle bakoitza bi ikuspegitatik konparatu da erreferentziako aldagaiarekin (toki gastu bateratuarekin): grafikoki eta analitikoki. Batetik, adierazle bakoitzaren barreiadura-diagrama egin da erreferentziako aldagaiarekin. Bestetik, erregresio lineal bakuneko analisiak egin dira, mendeko aldagai gisa jarriz erreferentziako aldagaia eta aldagai esplikatzailerik gisa jarriz gastu-beharren kasuan kasuko adierazlea.

Gastu-beharren zenbat adierazle hautatu, hainbeste erregresio bakuneko analisi egin dira.

Analisi horien bitartez zehazten da erreferentziako aldagaiarekin zenbaterainoko lotura duen gastu-beharren adierazle bakoitzak, eta, horrela, gastu-beharren adierazle gisa duen egokitasuna edo baliozkotasuna ebaluatzen da.

Aipatu txostenaren I. ERANSKINEAN jaso da gastu-beharren adierazle posibletzat identifikatutako aldagai guztien azterketa osoa (2016-2019 aldiko datuak). Hona eranskinaren edukia:

- Aztertutako aldagaien zerrenda. Aldagai asko dira,

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak eskaini dituen aztertutako aldirako (2016-2019)

- Aztertutako aldagaien eta erreferentziako aldagaiaren (guztizko gastu bateratuaren) estatistiko deskribatzaile nagusiak

- Gastu-beharren adierazle izateko hautagai gisa hartu den aldagai bakoitzerako lortutako barreiadura-grafikoak eta erregresiozko analisiak, erreferentziako aldagaiaren (guztizko gastu bateratuaren) aldean.

I. ERANSKINEKO informaziotik gastu-beharren adierazle batzuk atera dira, gastu arrunt bateratua azaltzen laguntzen dutenak; 1. taulan ageri dira.

1. taula: Erabili diren gastu-beharraren adierazleak (2016-2019)

Adierazlearen deskribapena	Izena
Populazio osoa	Ptot
Populazioa geruzaka:	pmen16
16 urtetik beherakoak	pmas65
65 urtetik gorakoak	POB_I
Populazio immigratzailea	POB_RP
Pobrezia arriskua duen populazioa	PARO
Langabeen kopurua (urteko batezbestekoa)	DENS2
Dentsitatea hiri azaleraren gainean	SUN_A
Hiri azalera garbia	IHEF
Udalerrri bakoitzeko entitate bereziak eta biztanleguneetako populazioa (Herfindhalen indizearen alderantzizkoa)	NVIV
Etxebizitza kopurua	

• ptot: udalerrri bakoitzeko populazio osoa (biztanleak).

• pmen16: udalerrri bakoitzeko 16 urtetik beherako populazioa (biztanleak).

• pmas65: udalerrri bakoitzeko 65 urtetik gorako populazioa (biztanleak).

• POB_I: udalerrri bakoitzeko populazio migratzailea (biztanleak).

• POB_RP: udalerrri bakoitzeko pobrezia arriskua duen populazioa (biztanleak). POB_RP adierazlea lortzeko, udalerrri bakoitzeko pobrezia arriskuaren tasa aplikatu zaio populazio osoari (biztanleak).

• PARO: udalerrri bakoitzeko langabeen urteko batez besteko kopurua (pertsonak)

• DENS2: udalerrriko biztanle kopurua hiri azaleraren kilometro karratuko (biztanleak/km²)

• SUN_A: udalerrri bakoitzeko hiri azalera garbia (metro karratuak)

• IHEF: populazioaren barreiadura indizea. Udalerrri bakoitzeko Herfindhalen indizearen (populazioaren kontzentrazioaren indizearen) alderantzizkoa da. Herfindhalen indizea lortzeko, udalerrri bateko biztanleguneetako populazioek udalerrriko populazio osoaren aldean dituzten proportzioen karratuak batu egiten dira.

Osagai Nagusien Analisia (ONA) interdependentziako aldagai anitzeko teknika da, aldagai kuantitatiboek osatutako matrize handi baten gainean aplikatzen dena. Helburutzat du datuen matrizearen dimentsioa txikitzea, datuen azpian dagoen egitura aztertzeke. Dimentsioa txikitzeke, aldagai artifizial gutxi batzuk hautatzen dira, faktore edo osagai nagusi deituak; jatorrizko

aldagaien konbinazio lineala dira, eta datuek daukaten informazio gehiena laburbiltzen dute.

Datuen azpiko egituraren analisia bi ikuspuntutatik egiten da azterlan honetan. Batetik, dimentsio txikiko espazio faktorial bat lortzen da, eta horrek erraztu egiten du aurreko puntuan hautatu diren gastu-beharraren adierazleen arteko korrelazio linealaren egituraren azterketa. Horrela detektatu ahalko dugu zein adierazle multzo dauden elkarrekin erlazionatuta eta zer zentzutan. Hartara, hobe ki ezagutuko dugu adierazleen portaera, eta erraz hautatu ahalko dugu azpimultzo bat, gero GBA lortzeko erabiliko dena.

Bigarren ikuspuntutik, esanahia esleitzen zaie osagai edo faktoreei, zeinek, esan dugun moduan, jatorrizko matrizearen funtsezko informazioa laburbiltzen baitute eta gastu-beharraren adierazleen multzo orokorreko diferentzia nagusiak jasotzen baitituzte. Faktore baten esanahia esleitzen da kontuan hartuz zer pisu, edo garrantzia erlazio linealaren terminoetan, duten beraren gain gastu-beharraren adierazleek. Hautatutako faktoreak interpretagarriak badira, gastu-beharren geroko analisi ekonometrikoetarako aldagai erabilgarriak izanen dira, propietate estatistiko bikainak dituztelako; izan ere, faktoreak aldagai normalizatuak eta elkarrekin korrelaziorik gabekoak dira.

Azken batean, Osagai Nagusien Analisaren bidez detektatzen da zer aldagai baztertzen ahal diren, informazio erredundantea eskaintzen dutelako, gainerako aldagaiekin eta faktoreekin duten erlazio linealaren bidez bildua. Hala, GBA lortzeko formula erraztu ahalko da gastu-beharrei buruzko informazio garrantzitsurik galdu gabe.

Osagai Nagusien Analisia gastu-beharraren 10 adierazleei aplikatuta, emaitzek erakusten dute

ezen, lehen bi faktoreak (1. faktorea eta 2. faktorea) hautatzen badira, gastu-beharraren adierazleek daukaten informazioaren % 90,2 gordetzen dela (bariantza totala) (ikus 2. taula).

2. taula Faktoreen balio propioak


	b. propioa	bariantza (%)	bariantza metatua (%)
1. faktorea	7.961	79.614	79.614
2. faktorea	1.057	10.568	90.183
3. faktorea	0.785	7.849	98.032
4. faktorea	0.146	1.456	99.488
5. faktorea	0.023	0.233	99.721
6. faktorea	0.018	0.181	99.902
7. faktorea	0.008	0.083	99.986
8. faktorea	0.001	0.010	99.996
9. faktorea	0.0003	0.003	99.998
10. faktorea	0.0002	0.002	100

3. taulan ageri da gastu-beharraren 10 adierazleek bi faktoreekin dituzten korrelazioen taula, eta 1. grafikoan taula horretako balioak irudikatzen dira, Osagai Nagusien Analisisan aldagaien grafikoa deritzon irudian.

3. taula: Gastu-beharraren adierazleen korrelazioa faktoreekin

	1. faktorea	2. faktorea
DENS2	0.425	-0.468
PARO	0.992	0.019
SUN_A	0.931	0.087
N_VIV	0.997	0.032
ptot	0.998	0.023
pmen16	0.992	0.017
pmas65	0.989	0.040
POB_RP	0.996	0.027
POB_I	0.991	0.017
IHEF	-0.062	0.908

1. grafikoa: aldagaien grafikoa (gastu-beharraren adierazleak)



2. eta 3. taulak eta 1. grafikoa ikusita, esanahia eman ahal zaie hautatutako bi faktoreei:

- 1. faktoreak bariantza totalaren % 79,6 azaltzen du, eta honako aldagai hauek osatzen dute funtsean: populazioa, etxebizitza nagusien kopurua, pobrezia arriskua duen populazioa, 16 urtetik beherako populazioa, populazio immigratzailea, 65 urtetik gorako populazioa eta hiri azalera garbia. Udalerriaren tamainarekin lotu daitezkeen faktorea da, batez ere biztanleriari dagokionez.

- 2. faktoreak bariantza totalaren % 10,6 azaltzen du, eta funtsean aldagai bakar batek osatzen du: Herfindhalen indizearen alderantzizkoak. Batez ere udalerrietako biztanleriaren barreiadura edo sakabanatze mailarekin lotutako faktorea da.

Emitza horiek ikusirik, aukeratutako bi faktoreei dagokienez (tamaina eta barreiadura) informazioa eskaintzen duten gastu-beharraren adierazleak hauta daitezke, eta bazter utzi gainerako adierazleak, informazio erredundantea edo garrantzirik gabekoa ematen dutenak.

GBA indizearen parte izanen diren gastu-beharraren adierazleak hautatzeko, honako irizpide hau erabili da:

1. Faktore bakoitzarekin korrelazio handiena duen gastu-beharraren adierazlea aukeratzen da haren ordezkatzailerik gisa (faktorearen aldagai nagusia).

2. Faktorearekin korrelazio handia (0,7 edo gehiago) baina ez handiegia (gehienez 0,95)

duen gastu-beharraren adierazleak aukeratzen dira, halakorik baldin bada. Aldagai horiek faktoreari buruz jasotzen duten informazioa ez da oso erredundantea aldagai nagusiarekiko, eta, beraz, pentsatzen da garrantzizko informazioa ematen dutela.

3. Halaber, faktorearekin oso korrelazio handia (0,95etik gorakoa) izanik GBA indizea osatzeko interesgarritzat jotzen diren gastu-beharraren adierazleak aukeratzen dira, halakorik baldin bada. Aldagai horiek, aldagai nagusiarekiko erredundanteak direnez, pisu txikia izanen dute GBAren formularen.

Irizpide hori aplikatuta eta 3. taulako informazioaren arabera, honako hauek dira gastu-beharraren adierazle gisa hautatu eta GBAREN parte izanen diren aldagaiak:

- 1. faktorea (tamaina) Aldagai nagusia: populazio osoa (ptot). Ekarpena egiten duen aldagaia: hiri azalera garbia (SUN_A).

Intereseko aldagaiak: 65 urtetik gorako populazioa (pmas65) eta pobrezia arriskua duen populazioa (POB_RP).

- 2. faktorea (barreiadura). Aldagai nagusia: Herfindhalen indizearen alderantzizkoa (IHEF)

Azken batean GBAREN parte izateko hautatutako aldagaien multzoa

4. taulan ageri da.

4. taula: GBA osatzen duten gastu-beharraren adierazleak

1. faktoreari (tamaina) lotuak	2. faktoreari (barreiadura) lotuak
Populazio osoa Hiri azalera garbia 65 urtetik gorako populazioa Pobrezia arriskua duen populazioa	Barreiadura (Herfindhalen indizearen alderantzizkoa)

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalek gastuei aurre egin ahal izatea bermatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalek gastuei aurre egin ahal izatea bermatzeko baliatu diren irizpideei buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00361), honako hau jakin nahi baitu: "Zer irizpide baliatu dira 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalek gastuei aurre egin ahal izatea bermatzeko behar diren zenbatekoak ezartzeko?". Hori dela-eta, hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak ematen dion informazioa: orain arte erabili den formularekin, finantzabideak zenbait aldagairen arabera banatzen ziren, eta horien artean udalerriaren populazioa eta hiri azalera ziren aldagai

nagusiak. Banaketan aldagai horiek balio txikiak esleitzen dizkiete biztanle gutxiago dituzten udalerriei, eta azken zenbatekoa berme-klausularen emaitza izaten da batez ere.

Kontuen Ganberak 2019ko martxoan txostena eman zuen toki ogasunek Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsari buruz (2009-2018), eta IV. atalean (Gomendioak) iradoki zuen "udalerri bakoitzeko finantzaketa-zenbateko finko bat ezartzeko aukera" aztertzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak proposatu duen formula berriak eguneratu egiten ditu aldagaiak eta horien haztapenak, baina lehengo dinamikari eusten zaio udalerrri txikiagoentzat. Horregatik komenigarritzat jotzen da zenbateko finko bat ezartzea udalerrri bakoitzeko, lehengo formularen arazoa konpontze aldera.

Udalerrriek tributueta parte hartzeko beste banaketa sistema batzuk aztertutik, ikusi da Estatu sistemak ez duela aurreikusten halako mekanismorik. Izan ere, sistema bat ezartzen du bildutakoaren zati bat probintzia edo autonomia-erkidegoetako hiriburuen edo 75.000 biztanletik gorako udalerrien artean banatzen duena eta beste sistema bat funts osagarri batean parte hartzeko zeina udalerrriaren biztanle kopuruaren arabera banatzen baita.

Euskal Autonomia Erkidegoak funts bana dauka bere probintzientzat, eta Arabako eta Gipuzkoako funtsek erregulatzen dute aldagai hau.

Proposatu den banaketa sistema berriaren kasuan, zenbateko finko beherakorraren sistema hautatu da, eta irizpide hau ezarri da: 30.000 euro 1.000 biztanletik beherako udalerrientzat, hau da, 189 udalerrientzat (% 70), eta 25.000 euro 1.000-2.500 biztanleko udalerrientzat, hau da, 36 udalerrientzat (% 13); guztira, 225 udalerreri (% 83).

Biztanleria eta ematen zaizkion zerbitzuak hazi ahala toki entitateen gastu arruntak gora egiten du, baina ez modu linealean, badirelako gutxieneko zerbitzu batzuk entitate guztiek bete behar dituztenak tamaina gorabehera (idazkaritza,

kaleko argiak, hilerria, bide azpiegitura eta abarrek).

Banaketan kontuan hartzen diren gainerako aldagaien arabera entitate bakoitzak jasotzen duen diru-esleipena indartzea da zenbateko finkoaren helburua, nahitaezkoak diren egiturazko behar oinarrikoak ase ahal ditzan. Xede horretarako egokitzat jotzen diren gutxieneko zenbateko batzuk ezartzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, trakzio-ahalmena baliatzen duten udalen determinazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin trakzio-ahalmena baliatzen duten udalen determinazioari buruz Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an


Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00362), honako hau jakin nahi baitu: Zer irizpide erabili dira trakzio-ahalmena baliatzen duten udalak zeintzuk diren zehazteko? Zer helburu bilatzen da udal horiek trakzio-egile gisa

izendatuta?. Hori dela-eta, hona hemen Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak eman beharreko informazioa: trakzio-ahalmena zein udalerririk baliatzen duten zehazteko, erabaki zen trakzio-izaeraren adierazlea (TIA) egitea Nafarroako 272 udalerrietako bakoitzarentzat. Zenbait aukera aztertu ondoren, hemeretzi aldagai hautatu ziren, bederatzi adierazle partzialetan multzokatuak; adierazle horiek hiru dimentsio edo faktore neurtzeko balio dute. Hala erakusten du 1. irudiak (Erabilitako aldagaien eskema metodologikoa, eta haien banaketa hiru faktoreetan).

Adierazle objektiboa eta kuantitatiboa denez, haren formulaziorako abiapuntutzat hartu dira faktoreen eta lurralde-garapenaren baldintzatzaileen aldagai adierazgarriak, aldi behin erraz neurtzeko modukoak eta, ahal dela, estatistika institutu ofizialek (NASTAT, INE eta abar) bermatuak.




RESUMEN

FACTORES = 3
INDICADORES PARCIALES = 9
VARIABLES = 19

Aldagai horietako bakoitzak bederatzia adierazle partzialak prestatzeko balio izan zuen. Adierazle partzial horien bidez azaltzen da egituratze-guneen geruza, Eskualdeko Lurralde Garapeneren Ereduko (ELGE) Hiri Sistemako mapan erabilitakoa. Mapa hori lurralde antolamenduko planetan (LAP) definituta dago. Emaitza gisa, adierazle

konposatu bat lortu da (TII, trakzio-izaeraren indizea), Nafarroako udalerrak sailkatzen eta ordenatzen dituen trakzio-ahalmenean oinarrituta eta aintzat hartuta zentraltasun-maila, erakargarritasun-/lehiakortasun-maila eta lurraldea egituratzeko ekarpena.

METODOLOGÍA



Trakzio-izaeraren indizearen (TII) eskema metodologikoa

Tillak, beraz, 272 udalerrietako bakoitzari balio bat esleitzen dio Foru Komunitateko lurralde-esparruetan duen trakzio-izaeraren arabera.

Trakzio adierazlearen garapenean hiru faktore hartzen dira kontuan:

- Zentraltasuna (I_MDT-ETN + I_ADMONFORAL, Nodoa). I_CENTR

- Erakargarritasuna eta lehiakortasuna. I_ATRAC_COMP

- Egituraketa eta harremanetarako gaitasuna (Sarea). I_REL

Zentraltasuna: I_CENTR. (I_MDT-ETN + I_ADMONFORAL)

Zentraltasunaren dimentsioa neurtzeko erabilitako hamabi aldagaiak jatorri eta izaera desberdinak dituzte, zein adierazle partziali ematen dioten erantzuna.

Lehenbiziko seiak sortzeko, zuzenean aplikatu dira Lurralde Garapenaren Eredua (LGE) eta haren osagaiak, Nafarroako Lurralde Estrategian (NLE) definituak. Hauek dira I_MDT-ETN adierazle partziala prestatzeko erabilitako aldagaiak:

- Ate elementua. “Nafarroarako sarbide fisikoak edo kulturala ematen duten eremuak edo guneak dira, edo berezko nortasuna izan eta kanpoaldearekin zuzeneko harremanak dituztenak.” (Nafarroako Lurralde Estrategia, 2005).

- Errotula edo/eta trantsizio elementua. “Beren kokaera geografikoagatik edo arlo jakin batean espazio lehiakorak izateagatik harreman-esparruak partekatze gaitasun nabarmena duten eremuak edo guneak dira.” (Nafarroako Lurralde Estrategia, 2005).

- Natura- eta landa-ingurunea egituratzeko izaera. “Batasuneko garrantzizko lekuen (BGL) saretik haragoko naturaguneak eta kultur paisaiak dira, gizakiak askoz gehiago hartuak, eta modu berezian kudeatu behar dira. Eremu horietan biltzen dira, halaber, Nafarroako Lurralde Ereduko kulturaren eta ondarearen osagaietako asko.” (Nafarroako Lurralde Estrategia, 2005).

- Lurralde bokazioak. “Etorrizuneko lurraldegarapenaren eredia osatzen duten elementuen oinarrian daude Nafarroako hiru bokazio nagusi horiek: Atlantikoa, Ebro eta Pirinioak, Nafarroa kanpoaldearekin lotzen dutenak, eta erdialdean bat egin eta uztartzen direnak; espazio hori, gainera, denek egituratzailea da.” (Nafarroako Lurralde Estrategia, 2005).

- Polizentrismorako ekarpena. “...guneen arteko sare erako lankidetzak-espazio bat bultzatu

beharko da, egungoa baino zabalagoa dimentsioetan eta eginkizunetan, eta komunikazioen korridore batek egituratua...” (Nafarroako Lurralde Estrategia, 2005).

- Hiri-azpistemaren elementua. “Batera funtzionatzen duten biztanleguneak, inguruan dituzten lurraldeei beste batzuekin lehiatzeko gaitasuna ematen dietenak hiri-jarduera batzuetan edo guztietan, bai eta beren lurraldea kudeatzeko ezberrik gabeko gaitasunean ere.” (Nafarroako Lurralde Estrategia, 2005).

Beste sei aldagaiak aldagai bitarikoak dira, udalez gaindiko zenbait ekipamenduren gainekoa, eta I_ADMINFORAL adierazle partziala prestatzeko erabili dira. Beste toki entitate batzuei zerbitzu ematen dion gune batean kokatuta daude:

- Udalerrian espezialitateetako osasun zentroa izatea. Iturria: IDENA.

- Udalerrian Bigarren Hezkuntzako institutua izatea Batxilergo eta guzti, edo Lanbide Heziketa-ko ikastetxea izatea. Iturria: Nafarroako Gobernuak. Hezkuntza.

- Udalerrian foruzain etxea izatea. Iturria: IDENA.

- Udalerrian suhiltzaile etxea izatea. Iturria: IDENA.

- Udalerrian Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoa izatea. Iturria: Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)

- Udalerrian oinarriko gizarte zerbitzuaren egoitza izatea. Iturria: Nafarroako Gobernuak.

Erakargarritasuna eta lehiakortasuna. I_ATRAC_COMP

Faktore honen definizioan parte hartzen duten aldagaiak hiru dira, eta faktorea taxutzen duten hiru adierazle partzialak (I_TUR, I_MON, I_EMPLEO) sortzeko erabiltzen dira. Aldagai deribatuen prestatzen diren kasu gehienetan, zenbait aldagairen balio absolutuak kasuan kasuko lurralde eremuaren (udalerriaren edo eskualdearen) biztanle kopuruarekin edo azalerarekin erlazionatzen dira. Erabilera horietan, ordea, ez da aintzat hartzen Nafarroako toki entitateak definitzen dituen hirugarren ezaugarria: kudeatzeko ahalmena, eta, kasu honetan, bakoitzak bere lurraldeaz eta biztanleriaz harago eragina izateko duen ahalmena. Adierazgarria da Iruñeko udalerriaren kasua, garapena erakusten duten adierazle askotan lehen tokian kokatzen baita normalean; ez da berdin gertatzen balio horiek Iruñeko biztanleriaren arabera haztatzen direnean. Aldagai absolu-

tuak biztanle kopuruarekin erlazionatuz gero, udalerrriak duen posizioa oso urrun dago balio absolutuak soilik kontuan hartuta hartzen duen tokitik. Horregatik, enpleguaren aldagaia, udalerrriaren lehiakortasuna neurtzeko faktorean erabilia, ikuspegi erlatibo batetik aukeratu da.

- Turismoko ostatuak. Udalerrian dauden turismoko ostatuen kopuru absolutua. Iturria: Nafarroako Gobernu. Garapen Ekonomikoa.

- Monumentuak. Udalerrriak dituen monumentuen kopuru absolutua adierazten du. Iturria: Nafarroako Gobernu. VPE-KZN.

- Enpleguak. Aldagai erlatiboa; udalerrri bakoitzak dituen enplegatuen kopurua adierazten du, Nafarroako jarduera tasarekin eta udalerrri bakoitzeko biztanleria aktibo potentzialarekin gurutzatuta. Enplegu sorrera eta jarduera ekonomiko eta sozialetako inbertsioa sustatzen diren tokian enplegua biztanleria aktiboa baino handiagoa da. Iturria: NASTAT.

Egituraketa eta harremanetarako gaitasuna (Sarea). I_REL

Azken dimentsio hau lau aldagaik osatzen dute. Horietako hiru erlatiboak dira, eta bat absolutua.

- EJSNak. Udalerrriak zenbat EJSN desberdin dituen adierazten du. Iturria: NASTAT.

- Merkataritzako enplegua. Merkataritzako EJSN kodea duten enplegatuen kopurua adierazten du udalerriko enplegatu kopuru osoaren aldean. Nafarroako saltoki txiki eta ertainen kokapenari buruzko datu ofizialik ezean, merkataritzako EJSNetara jotzea erabaki da. Iturria: NASTAT.

- MECNA proiektuak. Aldagai erlatiboa, MECNA proiektuen kopurua adierazten duena udalerriko 10.000 biztanleko. Iturria: Nafarroako Gobernu. VPE-KZN.

- Kulturako gastua. Adierazten du udalerrian biztanle bakoitzeko zenbat euroko gastu publikoa egiten den kulturari (musika eskolak, kulturako admin. orokorra, liburutegiak, museoak, euskara, aisiako instalazioak). Iturria: Nafarroako Gobernu. Toki Administrazioa.

Kalkulu sistema honek badu beste onura bat: LGEa funtsean aldatu ezean, elementuen balorazioa eta TIAren kalkulua hainbat eremu eta lurralde-esparrutara egokitu ahalko dira. Horrek sendotasuna ematen dio metodoari eta haren iraunkortasuna bermatzen du.

Behin lortuta aldagaien balioa, TIA adierazlea kalkulatzeko lehenbiziko urratsa normalizazioa da. Eragiketa horretan, eskuragarri dauden datuak balioen eskala mugatu batera ekartzen dira, 0 eta 4 bitarteko balioetara. Horretarako, aldagaiak diskretu bilakatzen dira irizpide aditu honi jarraituz:

Kodea	Deskribapena
PUER	"Atea" LGE elementuaren aldagaia. 0 elementu duten udalerrientzat 0ko balioa hartzen du. 1eko balioa, 1-3 ate elementu bitarte dituzten udalerrientzat. 2ko balioa, 3 elementu baino gehiago dituzten udalerrientzat. 3ko balioa, ate elementuen askotarikotasunagatik. Iruña "Nafarroako atea" da NLEaren arabera, eta 4ko balioa hartzen du.
ROTU	"Errotula" LGE elementuaren aldagaia. Errotularena egiten ez duten udalerrientzat, 0ko balioa. 1eko balioa, gutxienez bi hiri-azpisistema koordinatzen baditu. 2ko balioa, 3 azpisistema dituzten udalerrientzat. 3ko balioa Lizarrako eta Tuterako udalerrientzat, 4 hiri-azpisistema baino gehiago koordinatzen baitituzte. Iruñak azpisistema askoren errotularena egiten du eta 4ko balioa hartzen du.
ESTR	Natura- eta landa-ingurunea egituratzeko izaeraren aldagaia. 0ko balioa, halako izaerarik ez badu. 1eko balioa, izaera egituratzailea badu.
VOCA	"Lurralde bokazioak: Pirinioak, Nafarroa atlantikoa, Ebroko Ardatza, erdialdeko arroak eta Erdialdea" LGE elementuaren gaineko aldagaia. Balioa, horietako lautan egoteagatik. Hiru, bi, bat. Ez dago zerorik
POLI	Polizentrismorako ekarpenaren gaineko aldagaia. Erregioz gaindiko poloa, 4. Erregio poloa, 3. Erregioz azpiko poloa, 2. Eskualde poloa, 1. Azpisistema baten barnean erdiguneak hartzen du goreneko maila beheagoko mailen aldean. Aldatu egin da, zentraltasun handiagoa emanez zentraltasun maila bakoitzeko (erregioz gaindikoa, erregiokoa, eskualdekoa eta abar) erdiguneko poloari.
SUBS	"Hiri-azpisistema" LGE elementua. Guneak barnean hartzen duten azpisistema eta elementuetatik tiratzeko trakzio-ahalmena izatea. 0ko balioa aplikatzen zaie beren mugartetik kanpo ia trakzio-ahalmenik ez duten udalerriei. 1eko balioa, inguruko gune eta udalerrietatik tiratzeko nolabaiteko trakzio-ahalmena duten udalerrientzat. 2ko balioa, zentraltasuna baliatzen badu lurralde-eremu espezifiko batean finkatutako azpisistema batzuen gain. 3ko balioa, barnean hartzen duten azpisistemek baino zentraltasun handiagoa badu. 4ko balioa, eskualdeko zentraltasuna: barnean hartzen duten azpisistemak eta elementuak gainditzen ditu trakzio-izaerari dagokionez, eskualdeko lurralde-gobernantza antolatuz.
I_MDT-ETN	Lurralde Garapenaren Ereduko adierazle partziala (I_MDT-ETN). Aurreko sei aldagaien batura da. 0 eta 21 bitarteko balioa du.
SALUDESP	Especialitateekiko osasun etxerik baduen ala ez adierazten du; Iruña barnean gelditzen da, zerbitzu horiek eskaintzen baititu ospitalegunearen bidez (0, 1)
EDUC	Batxilergoko edo Lanbide Heziketako ikastetxerik baduen ala ez adierazten du (0, 1)
FORAL	Foruzain etxerik baduen ala ez adierazten du (0, 1)
BOM	Suhiltzaile etxerik baduen ala ez adierazten du (0, 1)
ORVE	Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegorik baduen ala ez adierazten du (0, 1)
SSBB	Oinarrizko gizarte zerbitzurik baduen ala ez adierazten du (0, 1)
I_ADMINFORAL	Udalez gaindiko ekipamenduei buruzko adierazle partziala (I_ADMINFORAL). Aurreko sei aldagai bitarikoaren batura da. 0 eta 6 bitarteko balioa du.
ZENTRALTASUNA	Trakzio-izaeraren adierazlea, zentraltasunean oinarritua: aurreko bi adierazle partzialen batura da (I_MDT-ETN gehi I_ADMINFORAL). 0 eta 27 bitarteko balioa du.

Kodea	Deskribapena
Jarduera	Guneko biztanleria aktiboaz gaindiko enplegua neurtzen du. Udalerriak dituen enplegatuen kopurua ken udalerriko biztanleria aktibo potentziala Nafarroako jarduera tasaren arabera.
I_EMPLEO	Udalerriko enpleguaren adierazle partziala (I_EMPLEO). 0ko balioa edo balio negatiboa duten udalerrientzat 0ko balioa hartzen du, ez baita pentsatzen lehiakortasunerako ekarpenik egiten duenik. I_EMPLEO adierazleak, udalerriko biztanleria aktibo potentzialaren % 0 eta % 25 bitartekoa denean jarduera tasaren arabera, 1eko balioa hartzen du. % 25 eta % 50 bitartekoa denean, 2ko balioa hartzen du. % 50 eta % 75 bitartekoa denean, 3ko balioa. % 75etik gorakoa denean, 4ko balioa hartzen du. 0 eta 4 bitarteko balioa du.
Turismoa	Turismorako ahalmena neurtzen du. Udalerri bakoitzak zenbat ostatu dituen.
I_TUR	Turismo-plazei buruzko adierazle partziala (I_TUR). Turismo-plazarik gabeko udalerrientzat 0ko balioa hartzen du. 0 eta 25 plaza bitarte, 1eko balioa. 25 eta 85 plaza bitarte, 2ko balioa. 85 eta 150 plaza bitarte, 3ko balioa. 150 plaza baino gehiago, 4ko balioa.
Monumentuak	Udalerri bakoitzak zenbat monumentu dituen.
I_MON	Monumentuetan oinarritutako adierazlea (I_MON). Monumenturik ez duten udalerrientzat 0ko balioa hartzen du. 0 eta 5 monumentu bitarte, 1eko balioa. 5 eta 10 monumentu bitarte, 2ko balioa. 10 eta 15 monumentu bitarte, 3ko balioa. 15 monumentu baino gehiago, 4ko balioa.
ERAKARGARRITASUNA LEHIAKORTASUNA	Trakzio-izaeraren adierazlea, lehiakortasunean eta erakargarritasunean oinarritua: aurreko hiru adierazle partzialen batura da (I_TUR, I_MON eta I_EMPLEO).. 0 eta 12 bitarteko balioa du.

Kodea	Deskribapena
CNAE_Distinto	Udalerriak zenbat EJSN desberdin dituen adierazten du.
I_CNAE	EJSNen buruzko adierazle partziala (I_CNAE). 5 EJSN baino gutxiago dituzten udalerrientzat 0ko balioa hartzen du. 5 eta 30 EJSN bitarte, 1eko balioa. 30 eta 55 EJSN bitarte, 2ko balioa. 55 eta 70 EJSN bitarte, 3ko balioa. 70 EJSN baino gehiago, 4ko balioa.
Merkataritzako enpleguaren ehunekoa	Merkataritzako EJSN kodea duten enplegatuen ehunekoa adierazten du udalerriko enplegatu kopuru osoaren aldean.
I_EMPCOM	Merkataritzarekin lotutako enpleguari buruzko adierazle partziala (I_EMPCOM). 10etik beherako ehunekoa duten udalerrientzat 0ko balioa hartzen du. 10 eta 30 bitarteko ehunekoa, 1eko balioa. 30 eta 45 bitarteko ehunekoa, 2ko balioa. 45 eta 50 bitarteko ehunekoa, 3ko balioa. 50etik gorako ehunekoa, 4ko balioa.
MECNA proiektuen kopurua 10.000 biztanleko	MECNA proiektuen kopurua adierazten du udalerriko 10.000 biztanleko. Iturria: VPE-KZN
I_MECNA	MECNA proiektuei buruzko adierazle partziala (I_MECNA). Proiekturik gabeko udalerrientzat 0ko balioa hartzen du. 0 eta 25 proiektu bitarte, 1eko balioa. 25 eta 100 proiektu bitarte, 2ko balioa. 100 eta 300 proiektu bitarte, 3ko balioa. 300 proiektu baino gehiago, 4ko balioa.
Biztanleko gastua kulturalan	Adierazten du udalerrian biztanle bakoitzeko zenbat euroko gastu publikoa egiten den kulturalan (musika eskolak, kulturako admin. orokorra, liburutegiak, museoak, euskara, aisiako instalazioak). Iturria: Toki Administrazioa
I_GASTCUL	Kulturako gastuari buruzko adierazle partziala (I_GASTCUL). 10etik beherako gastua duten udalerrientzat 0ko balioa hartzen du. 10 eta 50 bitarteko gastua, 1eko balioa. 50 eta 80 bitarteko gastua, 2ko balioa. 80 eta 200 bitarteko gastua, 3ko balioa. 200etik gorako gastua, 4ko balioa,
EGITURAKETA HARREMANETARAKO GAITASUNA	Trakzio-izaeraren adierazlea, harremanetan oinarritua: aurreko lau adierazle partzialen batura da (I_CNAE, I_EMPCOM, I_MECNA, I_GASTCUL). 0 eta 16 bitarteko balioa du.

Dimentsio horietako bakoitzak, bereiz, trakzioizaeraren adierazle (TIA) konposatu bat prestatzeko balio du 272 udalerrietako bakoitzarentzat. Aztertutako hiru dimentsioen batura da adierazle hori, eta 0 eta 55 bitarteko balioak hartzen ditu. Iruñeko udalerrriak lortu du puntu kopururik handiena, 44 puntu hain zuzen.

Lortu nahi den helburua da zenbait udalerrik lurralde-garapenean betetzen duten rola indartzea, udalerrri horiei beren eginkizunak inguruaren gaineko nolabaiteko trakzio-ahalmena ematen bai-

tiete; beraz, Foru Komunitateko lurralde-orekari bide ematen edo eusten dioten nodoak dira. Gainera, aspaldiko urteetan gertatzen ari diren lurralde-desberdintasunen goranzko joera eten nahi da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, 2022an 2021eko finantzaketa bera mantenduko duten udalei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Yolanda Ibáñez Pérez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2022an 2021eko finantzaketa bera mantenduko duten udalei buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Yolanda Ibáñez Pérez andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00363), honako hau jakin nahi baitu:

“Kontseilariak adierazi zuen 43 udalek 2021eko finantzaketa bera izanzen dutela 2022an. Horrek esan nahi du herri horiek 2021ean jaso zuten diru kopuru bera jasoko dutela eta ez zaiela KPI+2ko igoera aplikatuko?”.

Hori dela-eta, hona Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak eman beharreko informazioa: udale-

rri batzuek, nahiz eta finantzaketa eredu berriarekin 2022rako legokiekeen zenbatekoa 2021ean kontzeptu berengatik kobratutakoa baino txikiagoa izan, beren finantzaketari eutsiko diote, eta ez zaie murriztuko Transferentzia Arrunten Funttsaren ekarpena.

Gogora ekarri behar da 2021eko abenduaren 31ra arte dagoela indarrean otsailaren 27ko 3/2020 Foru Legea, toki ogasunek transferentzia arrunten eta beste laguntza batzuen kontzeptuetan Nafarroako tributueta duten partehartzearen funtsaren zenbatekoa eta banaketa ezartzen dituena 2020. urterako. Beraz, beste lege bat onetsi gabe ezin litezke banatu aurrekontuan jasotako zenbatekoak. Gainera, aipatu lege horrek ere ez du udalerrri guztientzat aurreikusten KPI+2ko igoera; hortaz, galderan azaldutako planteamenduak ez du legezko oinarririk bera aplikatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, txertoa jarrita izan arren COVID-19az kutsatutakoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin txertoa jarrita izan arren COVID-19az kutsatutakoei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00364), jakin nahi baitu "txertoen pautak osoa jarrita zeukatenen zenbat kasu eta zenbat ospitaleratze berretsi diren". Hori dela-eta, hona Nafarroako Parlamentuko Osasuneko kontseilariak ematen dion informazioa:

Nafarroan 2021eko azaroaren 7ra arte jasotako datuen bidez erantzunen zaie galderei. Nafarroan produktu bakoitzarekin txertatutako pertsonen kopurua, adina eta beste arrisku faktore batzuk askotarikoak dira, eta hori kontuan hartu behar da zenbaki hauek interpretatzerakoan.

1.- Pfizer-en txertoaren pautak osoa jarria zeukaten zenbat COVID-19 kasu berretsi dira Nafarroan? 3.596 infekzio

2.- Moderna-ren txertoaren pautak osoa jarria zeukaten zenbat COVID-19 kasu berretsi dira Nafarroan? 281 infekzio

3.- Janssen-en txertoaren pautak osoa jarria zeukaten zenbat COVID-19 kasu berretsi dira Nafarroan? 611 infekzio

4.- Astra Zeneca-ren txertoaren pautak osoa jarria zeukaten zenbat COVID-19 kasu berretsi dira Nafarroan? 975 infekzio

5.- Pfizer-en txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroan COVID-19a dela-eta? 190 kasu ospitaleratu dira

6.- Moderna-ren txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira

Nafarroan COVID-19a dela-eta? 9 kasu ospitaleratu dira

7.- Janssen-en txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroan COVID-19a dela-eta? 41 kasu ospitaleratu dira

8.- Astra Zeneca-ren txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroan COVID-19a dela-eta? 18 kasu ospitaleratu dira

9.- Pfizer-en txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroako ZIUetan COVID-19a dela-eta? 15 kasu sartu dira ZIUan

10.- Moderna-ren txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroako ZIUetan COVID-19a dela-eta? Ez da kasu bat ere sartu ZIUan

11.- Janssen-en txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroako ZIUetan COVID-19a dela-eta? 9 kasu sartu dira ZIUan

12.- Astra Zeneca-ren txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat ospitaleratze berretsi dira Nafarroako ZIUetan COVID-19a dela-eta? 2 kasu sartu dira ZIUan

13.- Pfizer-en txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat pertsona hil dira Nafarroan COVID-19a dela-eta? 63 hil dira

14.- Moderna-ren txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat pertsona hil dira Nafarroan COVID-19a dela-eta? · Bat hil da

15.- Janssen-en txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat pertsona hil dira Nafarroan COVID-19a dela-eta? 3 hil dira

16.- Astra Zeneca-ren txertoaren pautak osoa jarria zeukatenen zenbat pertsona hil dira Nafarroan COVID-19a dela-eta? Ez da inor hil

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, talde ezezagun baten eraso pairatu duten mugarriak leheneratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, talde ezezagun baten eraso pairatu duten mugarriak leheneratzeari buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-21/PES-00365), ea Nafarroako Gobernua jakitun

al den Frantziaren eta Espainiaren arteko muga zehazten duten hainbat mugarri erauzi dituztela, eta, hala baldin bada, noiz berrezarriko dituen mugarri horiek. Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuo Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Ciriza Pérez jaunak jakinarazten dio baietz, Nafarroako Gobernuak baduela galderan azaldutako gertakarien berri.

Mugarriak berrezartzeari dagokionez, Mugarrien Batzorde Mistoaren beste bilera baten zain gaude.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

Galdera, Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpetxeari buruz Domingo González Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00366), non honako informazio hau eskatzen baitio Nafarroako Gobernuari:

- Zuzenean kudeatzen duen gazteen aterpetxe bakarra bada ere, Kultura Departamentuak erabaki du Altsasuko Otadiko Kristo Santua Aterpe-

txearen instalazioak lagatzea edo pribatizatzea. Zergatik?

- Aterpetxea Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiari lagaz gero, zertarako erabiliko dira aterpetxe horren instalazioak?

- Kudeaketa zuzenean egingen al du Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak, ala pribatizatu egingen da, edo kudeaketa kanpoan kontratatu?

- Instalazioen erabilera beste departamentu bati lagaz gero, zertan eragingen die aterpetxe langile finkoei edo aldi baterakoei? Langileak aterpetxearekin batera transferituko al dira?

- Aterpetxea pribatizatu edo kanporatuz gero, aldi baterako langileen kontratuak amaiaraziko al dira? Eta langile finkoak baldin badira, zer lanpostutan kokatuko dira?

2019tik, gazteriaren arloko eskumenak Lehendakarietzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuari esleituta

daude. Azaroaren 15eko 327/2019 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Gazteriaren Institutua erakunde autonomoa sortu zen (hemendik aurrera, NGI) arloko erakunde eskudun gisa, eta horrekin batera azkendu egin zen Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

Komeni da argitzea NGIri atxikitako zentroak direla, batetik, “Baztan” Gazteen Aterpetxea, Lekarozen, eta Getadarko Gazteen Aterpea, biak ere zeharka kudeatuak, eta bestetik, “Otradiko Kristo Santua” Gazteen Aterpetxea Altsasun eta “Belbieretxea” Gazteen Aterpea Donezteben, zuzenean kudeatuak.

NGIren eskumena argituta, gaur egun Nafarroako Gobernua, erakunde autonomo horren bitartez, gogoeta prozesu batean ari da Altsasuko Otradiko Aterpetxearen kudeaketari, erabilerari eta etorkizuneko aprobetxamenduari buruz.

Instalazioaren kudeaketak eta erabilerek berri-kuspen sakona eskatzen dute etorkizunari begira. Beharrezkoa da gaia patxadaz hausnartzea, kontuan izanik aterpetxean egiten diren gauen kopurua eta okupazio apala (edukieraren heren bat inguru), erabiltzaile mota (kirol federazioak, desgaitasuna duten pertsonen elkarteak...), instalazioaren neurriak, eraikinaren antzintasuna, mantentze kostua eta abarrekoak.

Horri gehitu behar zaio sukaldea kudeatzeko lehiaketa hutsik gelditu ondoren aterpetxeak izan duen egoera, ez baita bideragarria aterpetxea ostatu gisa eskaintzea. Sukaldeko zerbitzurik gabe egon da urtarriletik. Noizbehinka catering enpresa bat kontratatu izan da iragan udan. Egoera horren ondorioz ezin izan da zerbitzua eskaini, nahiz eta instalazioak zabalik jarraitu, mantentze kostu eta guzti.

Zerbitzu bat ematea inoiz ez da ulertu behar errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegi hutsetik, baina gure betebeharra da baliabide publikoak eraginkortasunez kudeatzea, zorroztasunez, baliabide publikoen aprobetxamendu osoena eta onena helburu, herritar guztien mesedetan.

Egungo egoeran berriz azertu behar da proiektuaren bideragarritasuna baliabide publikoen optimizazioaren ikuspuntutik. Horrez gain, Gazteriako lantaldea sinetsita dago profil teknikoagoak behar direla ingurumenarekin, osasunarekin edo ongizate emozionalarekin zerikusia duten programetan lan egiteko, gazteek eskatzen duten bezala.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak (NGI) Nafarroako Gazteen Parte-hartzeari buruzko Diagnostikoa egin du, bi ikerketa sozial oinarri hartuta:

“Gazteak eta parte-hartze soziala Nafarroan” (2020ko abendua) eta “Nafarroako gazteen parte-hartzeari buruzko diagnostikoa” (2021eko ekaina). NGIren azterlan horrek erakutsi du “errotik” aldatu behar dela gazteen arloko politikak egiteko modua.

NGI gazteen errealitate berrira eta gazteen eskarietara moldatu behar da epe luzeko beharri-zanei aurre egiteko, NGIk ezarritako helburuak betetzeari dagokionez.

Gazteen arloko politika publikoen inplementaziorako egokitzapen horri ekiteko egin behar diren aldaketek eskatzen dute profil tekniko lanpostuak sortzea. Beraz, goian azaldutako egoeraren aurrean, lanpostu kualifikatu horien alde apustu egitea erabaki da, administrazioko edo zerbitzu orokorretako beste lanpostu batzuen kaltetan. Horrela, eraldatze hori egin ahalko da langile-kostuak handitu gabe.

Hala, bada, plaza batzuk amortizatzea erabaki da; zehazki, sei plaza huts, zerbitzu orokorretako bost lanpostuk eta administrari lanpostu batek beteak, Altsasuko Otradiko gazteen aterpetxean. Gaur egun ez dira lehentasunezko zat jotzen plaza horiek, eta erabaki da izaera tekniko eta estrategikoko beste plaza batzuen alde apustu egitea.

Altsasuko aterpetzeko plazak (bostaldi baterako eta bat hutsik) betetzen dituzten pertsonak berriz sartuko dira zerbitzu orokorretako eta administrazioko lanpostuak betetzeko kontratazioen zerrendan, eta NGIk baliabide horiek erabiliko ditu bestelako profilak bereganatzeko, askoz teknikoagoak eta gazteentzako zeharkako politikak bultzatzera bideratutako egungo estrategiarekin bat datozenak.

Ezin da lekualdaketarik planteatu, ez dagoelako zerbitzu orokorretako edo administrazioko lanik eskaintzeko; izan ere, Institutuaren egoitza nagusia badaude horrelako beharrak betetzen dituzten langileak.

Gazteen aterpetxeen helburuak dira, batetik, banaka zein taldean ostatu ematea hala eskatzen duten gazteei eta gazteen entitateei, nagusiki; eta bestetik, gazteen jarduerak egin ahal izateko laguntza ematea, arreta berezia jarriz NGIk programatzen dituen jarduerari, eta bizikidetzeta eta esperientzia partekatuen trukea ahalbidetzea.

Altsasuko aterpetxearen tamaina eta ezaugarriak kontuan harturik, Nafarroako Gobernua aztertzen eta hausnartzen ari da zein den instalazio horretarako erabilera onena, eta instalazioa egokia izan ote daitekeen zehatz-mehatz Gazte-

riaren esparrukoak ez diren eta beste departamentu batzuen interesa piztu dezaketzen beste kolektibo batzuentzat (ikasleak, kirol, gizarte eta kultur entitateak). Horri dagokionez oraindik ez da inolako erabaki zehatzik hartu.

Galdera horiek guztiak Altsasuko Udalari helarazi zaizkio.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 17an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, barne medikuntzako albokoen kontratuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin barne medikuntzako albokoen kontratuei buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00367). Hona Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak galdera horri erantzunez eman beharreko informazioa:

1.- Barne medikuntzako albokoen zenbat kontratu, eta zein egunetan, egin ditu Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak 2016tik hona profila baliatuta, eta ez kontratazio-zerrendaren bidez?

Zentroa	PROFILA DUTEN LANPOSTUAK	
2017		
NO	BFE/Barne medikuntzako albokoa (Etxeko Osp.)	BFE 1
NO	BFE/Barne medikuntzako albokoa (Etxeko Osp.)	BFE 2
NO	BFE/Barne medikuntzako albokoa (Etxeko Osp.)	BFE 3
2018		
NO	BFE/Barne medikuntzako albokoa (Etxeko Osp.)	BFE 4
NO	BFE/Barne medikuntzako albokoa (Etxeko Osp.)	BFE 5

2.- Berariazko zer eskumenek justifikatzen dute barne medikuntzako albokoen kontratazioa profila baliatuta egitea, eta ez kontratazio-zerrendaren bidez?

Barne Medikuntzako Zerbitzuak honako hau jakinarazi du:

BFE 1

Barne Medikuntzako Zerbitzuan berrantolaketa egin berri dugu pazienteen artapena hobetu ahal izateko Nafarroako Ospitalegunearantz estrate-

gikoak diren bi alderditan, O-NOZen eta Osasun Planaren helburuekin bat etorriz:

1. Patologia anitzeko paziente kronikoak artatzea

2. Ohiko ospitalizazioak saihestea

Ildo beretik, Etxeko Ospitalizazioan lau talde gehiago jarri dira (bi orain eta bi irailean), gure osasun barrutiko populazio osoarengana iritsi ahal izateko.

Arrazoi horrengatik, Etxeko Ospitalizazioko langileak eta Kronikoen/Patologia Anitzekoak Unitatekoak ataleko burutza beraren menpekoak izanen dira. Bi arlo horietako lanaren berezitasunak direla-eta fakultatiboek ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte, eta horrengatik eskatzen dugu behean azaltzen den profila bete dadila.

– Etxeko ospitalizazioaren unitate bateko lanari buruzko esperientzia dokumentatua edo/eta prestakuntza izatea.

– Etxeko ospitalizazioaren unitate bateko ohiko gailuei buruzko ezagutzak edo/eta esperientzia izatea.

– Patologia anitzeko paziente kroniko konplexuak artatzen esperientzia dokumentatua edo/eta prestakuntza izatea.

Profil horren balorazioan kontuan hartuko dira esperientzia edo/eta prestakuntza, bai eta etxeko ospitalizazioarekin eta patologia anitzeko paziente kroniko konplexuarekin zerikusia duten ikerlan, argitalpen, ikastaro, gida, protokolo eta abarrekoak ere.

BFE 2 eta BFE 3

Apirilaren 30ean, Etxeko Ospitalizazioaren Unitateko (EOU) fakultatibo batek bere kontratuari uko egin zion, tamalez. Bestalde, hurrengo hilabeteetan (maiatzean eta ekainean), bi profesionalen kontu pertsonalengatik eta uztailleko eta abuztuko oporrenegatik, gelditzen diren langileekin ezin izanen dira jardunean mantendu EOUko talde guztiak. Gainera, 2017ko irailean bosgarren taldea irekitzekoa da Etxeko Ospitalizazioko Iruñeko eremuan. Hiru arrazoi horiek tarteko, eta NOKo zuzendaritzarekin ados, egiturazko bi BFE kontratu eskatu genituen Etxeko Ospitalizazioaren Unitatearentzat, bata kontratuari uko egindako langilearen lekua betetzeko eta bestea udako absentiak betetzeko.

Bi mediku behar ditugu maiatzaren 11tik aurrera 08:00etatik 15:30era lan egiteko, lanpostuan 22:00etara arte egon beharreko guardiekin eta larunbat-igandeetako bisitekin. Gidabaimena eduki behar du (duela urtebete baino lehenago emana), egunero joanen delako pazienteen etxetara bisita medikoak egitera, batzuetan bakarrik eta besteetan erizainarekin. EOUak gaur egun estaltzen dituen eremu geografikoetako edozeini esleitu ahalko zaizkio bi mediku horiek (Iruña eta Iruñerria, "Erdialdea", "Iparraldea" eta irailetik aurrera "Lizarrako eskualdea")

Bi mediku horiek berriz ere profilararekin kontratu nahi genituzke, zeren eta, gure unitateak urte osoan izaten duen artapen lan handiarengatik,

lehenbailehen % 100ean operatibo behar baititugu, kontuan izanik sakabanatze geografikoaren zailtasunak, artatzen ditugun prozesuen askotarikotasuna (medikoak, kirurgikoak, aringarriak, pediatrikoak...), EOUan erabiltzen diren prozeduren eta tekniken berezitasuna (ospitaleko ohiko jardunaz bestelakoak) eta egunero ibilgailua gidatu beharra. Betekizun hauek eskatzen ditugu profilerako:

Ezinbesteko betekizuna:

– Etxeko ospitalizazioaren unitate bateko lanean esperientzia dokumentatua edo/eta prestakuntza egiaztatua izatea, gutxienez 6 hilabetekoa.

Hau baloratuko da:

– Etxeko ospitalizazioaren unitate bateko ohiko gailuei buruzko ezagutzak edo/eta esperientzia egiaztatua izatea.

– Patologia anitzeko paziente kroniko konplexuak artatzen esperientzia dokumentatua edo/eta prestakuntza egiaztatua izatea.

– Egiazta daitekeen ezagutza izatea Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 2014-2020 aldirako Nafarroako Osasun Planari buruz eta Patologia Anitzeko Pazienteak Artatzeko Estrategiari buruz.

– Baloratuko dira zientzia aldizkarietan argitaratutako artikuluak, ikastaro eta biltzarretako ponentziak, komunikazioak eta posterrak, zerikusia baldin badute etxeko ospitalizazioaren unitateetan edo paziente kronikoen unitateetan egindako lanekin.

– Baloratuko da etxeko ospitalizazioaren unitateetako edo paziente kronikoen unitateetako lanarekin lotutako gaiei buruzko ikerketa.

– Baloratuko da etxeko ospitalizazioaren unitateetako edo/eta paziente kronikoen unitateetako protokoloak eta jarduteko gida klinikoak prestatzen parte hartu izana, dokumentatzen baldin bada.

BFE 4 eta BFE 5

Barne Medikuntzako Zerbitzuak eta Etxeko Ospitalizazioaren Unitateak mediku bat behar dute lan hauetarako:

– García Orcoyen Ospitaleko Barne Medikuntzako Zerbitzuko Etxeko Ospitalizazioko artapena. Gaur egun hutsik daukate amatasuneko bajaran dagoen mediku baten lanpostua, eta mediku hori ez da abuztura arte itzuliko lanera.

– Etxeko Ospitalizazioaren Unitateko oporrak: uda honetan planifikatu da zabalik mantentzea Iruñeko eta Iruñerriko 3 hiri-talde, 3 landa-taldeak eta

ospitaleko balorazio taldea. Horretarako 7 mediku behar ditugu aldi guztietan.

– Patologia Anitzeko Paziente Kronikoen Unitateko barne medikuntzako medikuen oporrak estaltzea. Oinarrizko Osasun Laguntzatik balorazio asko eskatu direnez, beharrezkotzat jotzen dugu kontsulta guztiak zabalik egotea udan.

Mediku bat behar dugu maiatzaren 10etik aurrera 08:00etatik 15:30era lan egiteko, lanpostuan 22:00etara arte egon beharreko guardiekin eta larunbat-igandeetako bisitekin. Gidabaimena eduki behar du (duela urtebete baino lehenago emana).

Mediku hori profilararen arabera kontratatu nahi genuke, zeren eta, hiru unitateek urte osoan izaten duten artapen lan handiarengatik, eta kontuan izanik sakabanatze geografikoaren zailtasunak, artatzen ditugun prozesuen askotarikotasuna (medikoak, kirurgikoak, aringarriak, pediatrikoak...), EOUetan erabiltzen diren prozeduren eta tekniken berezitasuna (ospitaleko ohiko jardunaz bestelakoak) eta egunero ibilgailua gidatu beharra, behar dugun pertsonak ongi ezagutu behar baititu prozedurak eta lan egiteko era, sartzan den unetik % 100ean operatiboa izan dadin. Betekizun hauek eskatzen ditugu profilerako:

Beharrezkoa izanen da:

– Etxeko ospitalizazioaren unitate bateko lanean esperientzia dokumentatua edo/eta prestakuntza egiaztatua izatea, gutxienez 6 hilabetekoa.

Baloratuko da:

– Etxeko ospitalizazioaren unitate bateko ohiko gailuei buruzko ezagutzak edo/eta esperientzia egiaztatua izatea.

– Patologia anitzeko paziente kroniko konplexuak artatzen esperientzia dokumentatua edo/eta prestakuntza egiaztatua izatea.

– Egiazta daitekeen ezagutza izatea Nafarroako Osasun Zerbitzuaren 2014-2020 aldirako Nafarroako Osasun Planari buruz eta Patologia Anitzeko Pazienteak Artatzeko Estrategiari buruz.

– Baloratuko dira zientzia aldizkarietan argitaratutako artikulua, ikastaro eta biltzarretako ponentziak, komunikazioak eta posterrak, zerikusia baldin badute etxeko ospitalizazioaren unitateetan edo paziente kronikoen unitateetan egindako lanekin.

– Baloratuko da etxeko ospitalizazioaren unitateetako edo paziente kronikoen unitateetako lanarekin lotutako gaiei buruzko ikerketa.

– Baloratuko da etxeko ospitalizazioaren unitateetako edo/eta paziente kronikoen unitateetako protokoloak eta jarduteko gida klinikoak prestatzen parte hartu izana, dokumentatzen baldin bada.

3.- Zer negoziatu zen sindikatuekin kontratazio horiek egiteko?

Arauk ez du jasotzen sindikatuekin negoziatu behar denik. Kontratazio horiek Langileen Batzordeari jakinarazi zitzaizkion, eta horrela bete zen Osasuneko kontseilariaren martxoaren 23ko 347/2017 Foru Aginduaren 2.5 artikuluan xedatutakoa. Agindu horren bidez onetsi ziren aldi baterako kontratatuzko izangaien zerrendak kudeatzeko arauak, Osasun Departamentuari atxikitako erakunde autonomoetako zentro eta establezimenduetarako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemetak proiektuei eta aurrerabideei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemetak proiektuei eta aurrerabideei buruzkoa. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21-PES-00368), zeinaren bidez eskatzen baitu “osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemak direla-eta legegintzaldi honetan egin diren proiektuen eta aurrerabideen zerrenda”. Hona Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

1. Osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemak direla-eta legegintzaldi honetan egin diren proiektuen eta aurrerabideen zerrenda

Bardena:

Iturriak gehitzen jarraitu da: laborategia, erradioterapia, fisioterapia, odol bankua eta ehun bankua, prestazioak eta itunak kostua zehatzago kontrolatzeko, ugalkortasuna, ospitaleratutako pazienteen zainketa sanitarioei buruzko datuak eta txertaketa kudeatzeko produktu berriak (Inmunis eta Navac).

Lan-ildo bati ekin zaio prozesuen meatzaritzan. Lan bat egin da iktusari buruz eta azterketak egin dira beste arlo batzuetan, esaterako infartuen arloan.

Lan-ildo bati ekin zaio datuak multzokatuz. COVIDari buruzko lan bat egin da aldagaiekin.

Iktusaren erregistroa sortu da estrategiaren adierazleekin batera.

Emaitzen aldagaiak ebaluatzeko lanak hasi dira azterlan honetan: minbizia, biziraupen-azterketa koloneko minbiziarekin.

Iturriak sortu dira honako hauek aztertzeko: diagnostikoak, kanpo kontsultak, Oinarriko Osasun Laguntzako agendak, proba diagnostikoak eta ospitaleratutako pertsonen zainketa sanitarioak.

Eskizofreniaren kontrol panela eta aginte koadroa eboluzionatu dira, eta diabetesaren aginte koadroaren errendimendua hobetu da.

Basearen analisi sakona egin da, gero haren arkitekturaren eboluzioa egiteko, horrela lortuko baitira denbora-maiztasun desberdinekin eguneratutako datuak, historifikazioa kontrolatzen zaien datuen multzo handiagoa eta informazio pertsonalatuaren hedapenerako orientazioa, zeinaren bidez pertsona bakoitzak behar duen unean jasoko baitu bere intereseko informazioa. Horren guztiaren emaitza izan da Bardenaren 4.0 bertsio berriaren diseinua.

1. Koronabirusa:

Datu base berri bat sortu da. Hasiera batean orduz ordu eguneratzen zen, eta orain bi orduz behin. Larrialdien datuak ditu, ospitalizazioenak, proba diagnostiko positiboak, arakatze datuak, hezkuntzako populazioarenak eta SARS-CoV-2 koronabirusaren kontrako txertaketarenak.

Xedea da COVID-19a kudeatzea eta informazioa ematea gai hauetaz, besteak beste: kutsatzeak, ospitaleetako okupazioa –ospitaleratzeak, larrialdiak, kasu berriak–, txertoen estaldura, dosiak ematea eta hezkuntza.

Datuak esportatu dira:

NOPLOira, Argos garatu arte, Ministerioak pandemiaren jarraipenerako eskatutako datuekin.

Gobernu Irekira, herritarren eskura jartzeko.

SECA

Lehen aipatutako iturriak gehitu dira Bardena COREn (lana optimizatu egin zen iturriak partekatu ahal izan zitezen).

Eredu analitiko bat sortu da berriaz Kontabilitate Analitikoko analista aurreratuen beharretarako.

Ospitale Kostuen Espainiako Sarean (RECH) sartu zen.

NaIA

NaIA Retinografías Diabéticas produktuaren lehen bertsioa sortu da paziente diabetikoen erretinografien bahetze prozesuan laguntzeko. HCI aplikazioan produkzio integratuan jarri zen 2020ko ekainean.

Adinarekin lotutako makulako endekapena duten pazienteak artatzeko bitreo barneko zirkuitua hobetze aldera, produktu berri baten sorrerak eragin dezakeen hobekuntzaren azterketa amaitu da. Produktu hori NaIA Degeneración Macular Asociada con la Edad deituko da.

Lan-ildo bati ekin zaio hizkuntza naturalaren prozesamendurako teknikekin. Kontzeptu proba bat egin da larrialdi pediatrikoetako diagnostikoak kodetzeko, profesionalek idatzitako testu libretik abiatuta.

2. Osasun arloko emaitzen ebaluazio eta informazio sistemak direla-eta Osasun Departamentuak legegintzaldi honetan egin nahi dituen proiektuen eta aurrerabideen zerrenda.

BARDENA Planifikatutako hurrengo lanak:

Bardena Core.

- Denbora-aniztasuna ezartzea, egunero eguneratzen diren datuak sartu ahal izatea. Larrialdietatik hasi eta beste taula eta iturri batzuekin jarraituz, Osasuneko premien arabera.

- Prozesuekin lan egitea, prozesuak sortzen joatea Osasun Departamentuko eta O-NOZeko unitateek helarazten diguten logikaren arabera.

Bardena Difusión.

- Emaitzen ebaluaziorako atari bakarra sortzea, handik O-NOZek beharrezkotzat jotzen duen informazioa eskuratu ahal izateko.

- OOLko CdM baten lehen bertsioa sortzea, agenden gaia, aurrez aurreko arreta, 24 ordu baino gutxiagoko itxaronaldia eta abarrekoak lehenetsiz.

Bardena Milenia.

- Biziraupen-azterketa egitea biriketako minbizi ez mikrozitiko metastasikoan.

2 SECA Planifikatutako hurrengo lanak

Iturri gehiago sartzen jarraitzea eta sakonean aztertzea absentismoaren eta kontratazioaren gaia, baliabideen erabileraren efizientziari buruzko txostenak hobetzeko.

2 NaIA Planifikatutako hurrengo lanak:

- Adinarekin lotutako makulako endekapena duten pazienteak artatzen laguntzeko algoritmo batean (NaIA DMAE) lan egitea.

- Ebaluatzea ea dermatologia ez presentzialeko zirkuituari laguntzen ahal zaion melanomen diagnostikoaren gaiarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko abenduaren 2n

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

Galdera, arnagailuen lehiaketari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin arnagailuen lehiaketari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2021eko azaroaren 12ko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (10-21/PES-00369) arnagailuen lehiaketari buruzko informazioa eskatzeko. Hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Nafarroako Gobernuak zergatik egin zuen arnagailuen lehiaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko sendagile intentsibista batek ere parte hartu gabe?

COVID-19aren osasun krisiaren ondorioz arnagailuen beharra modu esponentzian handitu zen, eta merkatuan zeuden fabrikatzaileek ezin zuten ase eskaria. Muturreko larritasuneko egoera hartan lehiaketa egin zen beharrak asetzen ahalegintzeko.

2.- Nafarroako Gobernuak zergatik ez da harremanetan jarri eta ez die hitz emandako laguntzarik eman arnagailuen lehiaketara aurkeztu ziren enpresei?

Nafarroan arnagailuen produkzioa martxan jarri nahian honako lehiaketa hau abiarazi zen 2020ko apirilaren 2an: "Larrialdiko lehiaketa arnagailu-prototipoen diseinurako eta arnagailu-hornidurarako". Halaxe adierazi zen 10-21/PEI-00228 informazio-eskaeraren erantzunean. Nafarroako Gobernuak arreta eta informazioa eman

zieren hala eskatu zuten enpresa guztiei. Azpimarratzekoa da, ordea, lehiaketako eginbeharrak prototipoen azterketan amaitzen zirela eta inola ere ez zela erantzukizuna horretatik harago hedatzen.

Bestalde, azpimarratu behar da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak berrikuntza sustatzeko asmoz antolatu zuela lehiaketa, merkatu globalean lekua izan zezakeen proiektu edo enpresa berritzailearen bat garatuko zelakoan. Ildo horretan ere, lehiaketa hutsik gelditu zela deklaratu ondoren, arreta eman zitzaizen hala eskatu zuten enpresei.

3.- Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du lehiaketa horren beharraz, epeez, hartutako konpromisoez eta lehiaketa hutsik geratu ostean proiektua bertan behera utzi izanaz? Gobernuaren ustez, hasierako asmoa desagertu egin da?

Lehiaketaren beharra, epeak eta eskatutako konpromisoak osasun larrialdiko salbuespeneko egoerak eragin zituen. Lehiaketa ez zen bertan behera utzi, hutsik geratu zela deklaratu baino, aurkeztu ziren zortzi prototipoetatik batek ere ez zituelako betetzen baldintzen agirian ezarritako hemeretzi betekizunak. Beraz, kontua ez da hasierako asmoa desagertu den ala ez, baizik eta prototipoek ez zituztela baldintzak betetzen. Beste alde batetik, gaur egun badago merkaturia, eta behar izanez gero bertara jo daiteke erosketak egitera.

Erantsitako agirian doakizu eskatutako informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluko xedatua betez.

Iruñean, 2021eko azaroaren 25ean

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga